

# BALENDIN ENBEITA

## BERTSOPAPER-LEHIAKETA

12. EDIZIOA

Mendipe baten dago  
Uspitxa Jauregi,  
nere txikitxutako  
jolasen lantegi.  
Pozik egingo neukez  
idazten urte bi,  
zenbat maite zaitudan  
azaldu banegi!

Balendin Enbeita

Deialdi honen azalean ikusten duzue, Balendin Enbeita bertsolari handiak, bat-bateko bertsoak bikain kantatzeaz gain, gogoko zuen bere gustuko gaiari patxadaz idaztea ere. Eta horixe da, hain zuzen ere, orain eskatzen gatozkizuen, hau da, zuen gustuko gaia aukeratu eta bertso-sorta eder bat gogoz idazteko. Urte bi ez dizuegu emango, baina! Honelako lehiaketek, ondotxo dakizue, zenbait muga izaten dituzte.

Halandaze, irakurri ondoko oinarriak, eta hasi zuen gogoko gaia aukeratzen...

## OINARRIAK

### PARTE HARTZAILEAK

Lehiaketa honetan edonongo bertso-jartzaileek har dezakete parte. Adinaren arabera, atal bi bereizi ditugu.

- Helduak: 18 urte edo gehiagokoak.
- Gazteak: 17 urtera artekoak.

### EGIN BEHARREKO LANA

Bertsoen gaia, neurria eta doinua libreak dira parte hartzaile guztientzat.

- Helduek: parte hartzaile bakoitzak gutxienez 8 bertso egin behar ditu, eta gehienez 12.
- Gazteek: parte hartzaile bakoitzak gutxienez 6 bertso egin behar ditu, eta gehienez 10.

Parte hartzaile bakoitzak nahi beste bertso-sorta aurkez dezake.

### EPEA ETA BALDINTZAK

- Lanak jasotzeko azkeneko eguna 2017ko irailaren 30a izango da.
- Bertso guztiek berriak izan behar dute, hots, beste inon saritu edo argitaratu gabeak.

### SARIAK

#### Helduentzat:

- 1. saria: txapela, 1.000€ eta garaikurra.
- 2. saria: 700€ eta garaikurra.
- 3. saria: 400€ eta garaikurra.

#### Gazteentzat:

- 1. Saria: txapela, 300€ eta garaikurra.
- 2. Saria: 200€ eta garaikurra.
- 3. saria: 100€ eta garaikurra.

Bertso jartzaile batek ezingo du sari bat baino gehiago jaso; halandaze, lortzen duen saririk handiena emango zaio.

## NORA ETA ZELAN BIDALI

Bertsoak posta arruntez zein posta elektronikoz bidal daitezke.

- Posta arruntez bidaltzekotan, bertso-paperean ez du egilearen izenak agertu behar. Bertso-sorta bakoitza izengoitiz sinatuko da eta egilearen izen-abizenak, jaioteguna, helbidea eta telefonoa/e-maila beste gutunazal batean sartuko dira, kanpoaldean izengoitia ageri dela. Gutunazal bietan bertso-gilea zein ataletara aurkezten den zehaztu behar da.

Hona hemen gure helbidea:

BALENDIN ENBEITA XX. SARIA  
ALGORTAKO BERTSOLARI ESKOLA (ALBE)  
Martikoena 16, 2. solairua.  
48992 GETXO

- Posta elektronikoz bidali gura badira, Word formatuko dokumentu bi bidali behar dira. Batean bertso sorta bera eta goitizena; eta bestean, goitizena eta norberaren xehetasunak. Hona hemen gure helbide elektronikoa:

[balendinenbeita@gmail.com](mailto:balendinenbeita@gmail.com)

## EPAIKETA ETA SARIA EMATEA

- Epaimahaia ALBEk izendatuko du eta sariak urte amaieran izan ohi den ALBE GALA ekitaldian emango dira.
- Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da.
- Epaimahaiak sariren bat jaberik gabe utz lezake; bai eta akzesit bat edo beste eman ere, hala iritziz gero.

## LANEN JABETZA ETA BESTELAKOAK

- ALBEk izango du saritutako lanak argitaratzeko eskubide osoa, eta bera izango da saritutako zein argitaratutako lanen jabe.
- Lehiaketa honetan parte hartzeak arau hauek guztiak onartzea dakar. Arautegi honetan jasotzen ez den edozein gorabeheratan, ALBEk izango du erabakitzeko eskumena.

Lehiaketari buruzko informazio gehiago gura izanez gero, hona hemen harreman bideak:

Telefono zenbakia: 605 704 385  
E-maila: [albegetxo@gmail.com](mailto:albegetxo@gmail.com)  
Webgunea: [www.albe.eus](http://www.albe.eus)

Zuen bertsoen begira lotzen gara...



[www.albe.eus](http://www.albe.eus)